

# ito... eta kito!

Mendigorriko koban

Tartalo izeneko begi bakar gizato\*bat  
bizi zala inoen herriko zaharrak.

Hori entzunda eta ikusgureak\*bultzatuta\*  
bertara joan zan behin Peru izeneko mutiko bizkorra.

Heldu, eta barrura sartu zan.

Barruan ez egoan inor. Bainha halako baten  
*dank, dank, dank...* pausu-hotsa entzun eban.

Tartalo bera zan; ardiakaz etorren.

*Dzast!* Mutilak behingo baten\*gorde eban bere burua. Bainha...

—Ja, ja, ja! *Ikusi haut*, —esan eutsan gizatoak- *galdua haz!*

Eta koba sarrerea itxi egin eban harri bateaz.

Gero,

—*Gaurko ba jaukat janaria* —esan eutsan—  
*baina biharko ez...* *Bihar hēu izango haut janari!*

Hori entzunik, gomutara etorri jakon Peru-ri  
herriko zaharrak inoena: gizajalea\*ere ba zala.

Eta dardaran jarri zan.

—*Gaur azkenengo loaldia izango doz-eta*  
*egik ohe horretan lo* —esan eutsan gizatzarrak\*.

Lo? Bai, zera! Artega\*egoan eta ikaratuta, gure mutila.

Lo-korronka... bai, Tartalo bera!

Batera ta bestera ebilan Peru nondik eta zelan urtengo begira.

Honetan, gorpu\*bat ikusi eban ohepean.

Ta hauxe esan eban berekautan

—*Ohe gainean ipiniko joat gorputa*  
*eta ohepean sartuko nōk neu.*

Ta horixe egin eban.

Gauerdian, Tartalok, iratzartu zanean,  
*dzast! dzast!* eztenkada\*bi emon eutsazan ohe gaineko gorpua.

Eta hiltzat itzirik lotara joan zan barriro.

Peruk gero, gorputa ohepean ipini eta ohe gainean entzun zan bera.

Biharamon\*goizean

—*Egun on!* —esan eutsan Peruk— zelan egin dozu lo, ba?

\* gizato = hombrón, gigante  
\* behingo baten = en un dos por tres  
\* ikusgurea = curiosidad  
\* bultzatu = impulsar

\* artega = inquieto, intranquilo  
\* gorpua = cadáver  
\* eztenkada = puyazo

\* biharamonean = al dia siguiente  
\* ondo samar = bastante bien  
\* burduntzi = estaquilla

\* ilentzi = tizón  
\* erostaka = lamentando  
\* oinaze = dolor, sufrimiento

\* itsumustuan = a tientas  
\* eratzuna = anillo  
\* ataka = sarrera

—Nik ondo, —esan eutsan harriturik— *eta heuk?*  
—Nik ondo samar\*... Zorri batzuk izan ditut, baina ondo!  
Tartalo orduan, lehengo eztenkadak ez zirala nahikoa izan-eta  
burduntzi\*bat zorroztzen hasi zan.  
Peruk Tartalo-ren asmoa susmaturik surteko ilenti\*bat hartu eta  
zaust! begi bakarrean sartu eutsan.  
—Ai, ai, ai! —erostaka\*hasi zan oinazez,\*eta— *Galdua nōk!* —esanez.  
Eta Tartalo itzu gelditu zan.  
Amorruak eraginda Peru-ren bila hasi zan.  
Iibili ta ibili... itsumustuan,\*harrapatu egin eban.  
Eta erdiko hatzamarrean eratzun\*bat sartu eutsan,  
“*hemen najaōok*” esaten ekian eratzun bat.  
Gero ardiak kanpora atarateko orduan,  
koba atakan\*jarririk banan banan ataraten hasi zan  
lepoan danei ikuturik.  
Peruk, mutiko zorrotza zan-eta, ardi narru bat aldean ipinirik  
lau-hankan aterantza jo eban.

—“*Hemen najaōok...* *najaōok...*” —inoan aldika eratzunak.  
Baina hurrean entzun arren Tartalok  
beste ardi bat zalakoan kobatik urteten itzi eutsan.  
Konturatu zanean, barriz...  
—*Madarikatu hori!* —esanda, atzetik jarraitu eutsan.  
Atzetik joakola ikusirik erreka ertzera joan  
eta hatzamarra eratzun eta guzti ebagi egin eban Peruk...  
Eta uretara bota!

Tartalok “*hemen najaōok*” entzuten eban lekura salto egin...  
Eta, ito!

